

Gazte Geografia.	2	2015	p: 29-56	ISSN 2341-3239
------------------	---	------	----------	----------------

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA GARAPENAREN BILAKAERAREN AZTERKETA: URIBE ESKUALDEAREN ADIBIDEA.

Data: 2015/06/26

**Gorka MANZARBEITIA GUTIERREZ\***

## LABURPENA

Azken urteetan, eskualdeetako landa garapena eredu agrarista batetik udalerrri txikietako biztanleria berria erakartzeko etxebizitzaren eskaintzan oinarritutako beste landa eredu batera pasa da. Metodologia erabat aldatu da; alde batetik, informazio bilketa murriztu eta parte-hartzea selektiboa izatera pasa da, eta bestalde, landa garapen plangintza praktikoago bat lortu nahian eskema metodologikoa berritu da, era horretan esparru estrategikoa funtsezko atala bihurtu da, diagnostiko fasea bigarren plano batean geratu delarik. Edukiei dagokionez, ideia globalagoak formulatzen hasten dira eta esangura txikiko ideiak berriz, baztertu egiten dira. Ekintzen dibertsifikazio bat ematen da, eta aldi berean helburu bakoitzeko estrategia kopurua murriztu egiten da, konkrezio-maila handiagoko plangintza baten erakusgarri.

**Hitz gakoak:** landa garapena, metodología, edukien bilakaera.

## RESUMEN

En los últimos años, el desarrollo agrario comarcal ha pasado de un modelo agrarista a un modelo basado en la oferta de vivienda nueva en municipios de pequeño tamaño. La metodología ha cambiado notablemente. Por un lado, las fuentes de información se han reducido y la participación ha pasado a ser más selectiva. Además, con la intención de conseguir una planificación más práctica se ha renovado el esquema metodológico, de esa forma el marco estratégico se ha convertido en un elemento fundamental, mientras que la fase de diagnóstico se ha quedado en un segundo plano. En lo que se refiere a los contenidos, se empiezan a formular ideas más globales y las ideas de poca relevancia se dejan aparte. Se da una diversificación de las acciones, y al mismo tiempo se reduce el número de estrategias dirigidas a cada objetivo, dándose una planificación más concreta.

**Palabras clave:** desarrollo agrario, metodología, desarrollo de los contenidos.

\* Zuzendaria: Dr. Juan Cruz Alberdi Collantes. Geografia, historiaurrea eta arkeologiako departamendua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea

## ABSTRACT

Over the last years the local agricultural development has gone from an agrarian model to a model based on the supply of new public and social housing in small municipalities. Methodology has changed dramatically; on the one hand, information sources have decrease in number and participation has become selected. Moreover, with the intention of achieving a more practical planning, the methodological scheme has been renewed, in that way the strategical framework has become an essential element, and consequently, the diagnostic phase has been/ remained in the background. With regard to contents, more global ideas are formulate and little relevance ones are put off. Diversification of actions occurs and, at the same time, the number of strategies directed to each of the aims is reduced, an example of more concrete plan.

**Key words:** agrarian development, methodology, development of the contents.

## 1. SARRERA

Landa guneak gure lurraldean azalera gehien hartzen duten zonaldeak izanik, hauen garapena guztiz beharrezkotzat hartu beharko litzateke lurralde oreka bat bilatu nahi bada. Landa Garapen Programek (LGPek) gainera garrantzi gutxiko elementuak izaten jarraitzen dute eta geografia arlotik hauen garapena bultzatzea ezinbestekoa da. Horrez gain, giza natura arteko harreman orekatua bilatzen saiatzen da, gaur egungo gizarte garapen ereduak kolokan ipiniz eta bestelako garapen ereduak planteatuz horrek azterlan moduan bereziki interesgarri izatea eragiten du.

Lan hau, Geografia eta Lurralde Antolakuntzako Gradu Amaierako Lan moduan aurkeztu den dokumentua da. Bertan erabilitako metodologia, idatzizko testuetatik, artikulu ezberdinetan jasotako informaziotik, entrebista pertsonalen bitartez lortutako datuetatik eta argitaratu gabeko txostenen jarraipena eginez osatu da. Lanaren helburuak hiru dira:

Lehenengoa, Landa Garapen Programek Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bilakaera orokorra aztertzea litzateke. Bertan, Juan Cruz Alberdiren testuak erabiliz 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte emandako bilakaera kronologikoa aztertzen da.

Bigarren helburua, LGPeK izandako metodologiaren bilakaeraren azterketa egitea litzateke, bertan LGP-en alde metodologiak 1998ko EAE-ko Landa Garapen Legea sortu zenetik gaur egunera arte eman diren planteamenduen bilakaeraren azterketa egiten delarik. Atal honetan, aurreko atalerako erabilitako Alberdiren testuez gain, elkarrizketetatik lortutako informazioa gehitu da.

Azken helburu gisa, Uribeko eskualdeak Landa Garapen Programen inguruan izandako edukien bilakaera aztertzea litzateke. Bertan, eskualdearen ezaugarri orokorrak aipatzeaz gain, bertako landa gunearen deskribapena egin da, eskualdeak aurkezten dituen berezitasunak kontuan harturik edukiak aproposak izan diren jakiten lagunduko digulakoan. Horren ondoren azken bi epealdietako eskualdeko informazioa erabili da edukien bilakaeraren azterketa egin ahal izateko. Bertan, 2007-2013 eta 2015-2020ko LGPetako edukien barnean legokeen AMIAn oinarrituriko helburuen eta estrategien konparaketa egin da.

## **2. MATERIALAK ETA METODOAK: ARGITARATUTAKO INFORMAZIOTIK ENTREBISTETARA**

Lan honen diseinuan atal nagusi bi bereiz daitezke: alde batetik landa garapen politikek eta LGPetako metodologiak EAEn izandako bilakaeraren azterketa bat egiten da; eta bestetik, landa garapen programetako edukiek izandako bilakaeraren azterketa egiten da, horretarako Uribe eskualdearen adibidea hartzen delarik.

Landa garapen programak aztertzeko erabilitako metodologia elkarrizketan eta behaketan oinarritu da. Elkarrizketa HAZIko teknikari bati, Donostialdea eskualdeko landa garapeneko arduradunari eta Jata-Ondo elkarteko arduradun bati egin zaie. Era horretan, LGPaK egiteko erabiltzen ari diren metodologia berriaren inguruko informazio jaso ahal izan da, Jata-Ondo elkarteko arduradunak Uribeko landa garapen proiektuetan erabilitako dokumentuen berri eman digutelarik. Aldi berean, lanerako erabilitako artikulua landa garapen politiken eta metodologiaren bilakaerari buruzko informazioa biltzeko erabili dira. Honez gain, datuen analisisan, Jata-Ondo Elkarreak emandako argitaratu gabeko txostenen jarraipen bat eraman da aurrera, 2007tik geroztik elkarreak egindako txostenen analisisa egin delarik. Hala ere zailtasunak egon dira Uribeko landa eskualdeko zenbait txosten lortzeko 2015. urteko LGPa ez baitzuten amaituta. Horren ondorioz, elkarrizketak egiteko beharra ikusi da. Informazio bilketa guzti hau arlo bakoitzeko bilakaeraren analisisa egiteko baliagarri izan da, analisi horietatik balorapen orokor bat egin delarik.

Guzti honez gain, lanean zehar aurkezten diren mapen eraikuntzarako QGIS programa erabili da, horretarako Mendineteko Zuzendaritzak hornitutako kapa kartografikoak erabili

direrarik. Lanean agertzen diren grafiken kasuan ere, datuak Uribe eskualdeko argitaratu gabeko txostenetatik eta Eustatetik hartu dira, ondoren excel programaren bidez grafikak eratu direrarik. Gainontzeko irudiak metodologia arloan erabilitako eskema orokorrak edo bestelako lan tresnak izan dira, eta informazio iturri moduan erabilitako dokumentuetatik hartu dira.

Landa Garapen Programek Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bilakaera orokorra aztertzeke, Landa garapenari buruzko hiru artikulu erabili dira. Bertan, era kronologikoan doazen artikuluen irakurketa egin ondoren, bilakaera horren inguruko analisia egin da ezaugarri eta aldaketa adierazgarrienak markatuz.

LGPeK izandako metodologiaren bilakaeraren azterketa egiteko ere Alberdi(2004,2010,2014) artikulua erabili dira, baina kasu honetan metodologiaren inguruko informazioan zentratuz. Horretarako batez ere argitaratutako azken bi artikulua izan dira aiposatuak. Hala ere metodologiak izandako azken aldaketen inguruko informazioa lortzeko beste iturri batzuk erabili dira. HAZIko teknikari baten bitartez adibidez, HAZI(2015) metodologia berriko dokumentua lortu da. Bertan agertutako datuak, informazioa helarazi digun teknikariarekin eta Behemendiko (Donostialdeko Landa Garapen Elkarte) arduradunarekin egindako elkarrizketa baten bitartez osatu da. Modu horretan, metodologia arloan eman diren aldaketen inguruko azalpen bat lortu nahian, 2013tik hasitako berrikuspen prozesuan emandako pausoen eta 2015etik aurrera martxan jarri den Paisai Estrategia berriaren inguruko informazioa lortu da.

Uribeko eskualdeak Landa Garapen Programen inguruan izandako edukien bilakaera azterketa egiteko JATA-ONDO(2007,2014,2015) argitaratu gabeko txostenak erabili dira. Lanerako hiru txosten hauek era kronologikoan doaz eta edukien bilakaera bat ikusteko erabiliak izan dira. Hala ere txosten hauek ez dira guztiz osatuak egon, azken biak oso berriak direnez Jata-Ondoko elkarteko kideei ez die denborarik eman txosten guztiak idatzi eta euskaratzeko. Ondorioz, lan honetarako lortutako azken bi txostenen parteak baino ez dira erabili. Informazio iturri moduan erabilitako lanerako txosten hauen datuak mugatuak izanik elkarrizketa bat egiteko beharra ikusi da. Elkarrizketa hori Jata-Ondo elkarteko arduradun bati egin zitzaion, era horretan egiten ari zirena esan eta idatzita ez zuten informazioaren berri eman zuten.

### **3. LANDA GARAPENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: ZAILTASUN UGARIZ OSATURIKO BILAKAERA MANTSOA**

Lan honetako lehenengo helburu gisa, landa garapen programek Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bilakaera orokorra aztertzea izan da. Helburu hori lortzeko EAEn emandako landa garapenaren inguruko bilakaera kronologikoari buruzko informazioaren lanketa bat egin da. Informazio iturri moduan landa garapenari buruzko Alderdiren hiru artikulua erabili dira, 80ko hamarkadatik gaur egunera doan epealdia aztertuko litzatekeelarik.

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) lehenengo sektorearen pisu ekonomikoa murrizten joan da urteen joanarekin, gaur egun jada Barne Produktu Gordinaren (BPG) %0,9a (Eustat 2014) besterik suposatzen ez duelarik. Bere ekarpen ekonomikoa txikia izan arren, garrantzi handiko sektorea da, gure ondare paisajistiko eta kulturala zaintzen baitu. Bere ekarpen garrantzitsua ikusirik eta azken hamarkadetan izandako zaitasunak kontuan harturik, EAEko hainbat erakundek sektorea babesten ahalegindu dira.

Gaur egungo landa guneek ezaugarri komun batzuk erakusten dituzte; biztanleria zaharkitua, errelebo falta eta nekazal jardueren abandonu prozesua besteak beste. Hala ere EAEko eta batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako nekazal zonaldeek berezitasun batzuk erakusten dituzte, dentsitate demografiko altua edota presio urbanistiko nabarmena esaterako. Egoera horren aurrean, landa guneetako ustiategiek inbertsioak egin eta lehiakorragoak izateko zailtasunak izaten dituzte. Aldi berean, gizartean landa guneetako lehenengo sektoreak duen aukera falta eta prestigio eskasaren ideia zabalduak zailtasun gainjarri bat suposatu dute jende gaztea sektorera erakartzeko.

EAEEn landa garapenaren inguruko politikak nahiko berriak dira. 80ko hamarkadan hasi ziren landa guneetako garapen politikak proposatzen. Orain arte egindako landa garapenari buruzko bi lege egon dira martxan. Alde batetik, 1986an martxan jarritako 1976ko Mendi Nekazaritza Legea eta bestalde, 1998ko Landa Garapen Legea. Bi lege hauek oinarritzko elementuak izan dira landa garapen politikak aurrera eraman ahal izateko.

1976ko Mendi Nekazaritza Legea Europar Erkidegoak burututako landa garapenera zuzendutako lehenengo legea suposatu zuen. Hala ere Euskal Autonomia Erkidegoan ez zen 1986rarte martxan jarri, data horretan sartu baitzen Espainiar estatua Europar Erkidegoan. Lege honek eskualdea zuen oinarri, horren arabera lurralde mugaketa egiten baitzen landa guneen garapen planak aurrera eramateko. Eskualde bakoitzean Mendi Nekazaritza Elkarte bat egoten zen, bertako landa garapen programa egiteaz arduratzen zena. Elkarte hauetan, eskualdeko nekazaritza, abeltzaintza, agroturismo edo nekazaritzako elikagaien sektoreetako elkarteez gain, udalek, entitate txikiek eta udal partzoneriek ere parte-hartzen zuten. Hasiera bateko landa garapen agentziek ez zuten alde aurreko eztabaidarik egin aurrera eraman nahi zuten landa garapen ereduaren inguruan. Diru laguntzak banatzerako orduan ere, ez zituzten irizpide finkorik, izan ere, erabilitako irizpideak mendi nekazaritza elkartze bakoitzak momentu jakin batean adostutakoaren arabera izan ziren. Kasu askotan diskriminazio bat ematen zen, gainbeheran zeuden landa guneak edo 2R kategoriadun udalerririk izaten baitziren onuradunak, hauek kasu gehienetan 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk zirelarik. Beraz, biztanleria kopuru handiagoko udalerririk diru laguntzak jasotzeko zailtasunak izaten zituzten.

1998ko apirilean Eusko Legebiltzarrak, Landa Garapen Legea onartu zuen talde politiko guztien adostasunarekin. EAE mailako lege berri hau Espainiar estatuko gainontzeko autonomia erkidegoentzako erreferente bat bilakatu zen. Lege honek helburu hirukoitza zuen, alde batetik administrazio publikoak landa garapenerako jarraitu beharreko helburuen definizioa egitea, landa guneen garapenerako jarraitu beharreko araudia ezartzea eta

azkenik, landa guneen garapena helburu gisa zuten gainontzeko ekintza eta politika administratiboen egokitzapena ahalbidetuko zuten tresnen zehaztapena egitea.

1998ko Legeak izaera berritzaile eta osatuagoarekin aurkeztu zen. Alde batetik, multifuntzionalitatea eta iraunkortasuna bilatzen zen; era horretan tokiko identitatea mantendu, egitura ekonomikoen eta enpresen lehiakortasuna handitu eta administrazio ezberdinen ekintzak eta arauak barne hartuko zituen ikuskera osatuko zen. Bestaldetik, administrazio ezberdinen derrigorrezko inplikazioa bilakatzen zen; LGPen onarpenak administrazio bakoitzari zegokion kompetentzia arloan eragina izango baitzuen, eta beraz, Eusko Jaurilaritza zein diputazio edota udaletxeek plan hauen exekuzioa aurrera eraman beharko zuten. Horrez gain, 1991tik aurrera Europar Batasunak sortutako LEADER programetatik kanpo geratu ziren EAEko hainbat eskualdeei landa garapen programen onuradun izateko aukera berria zabalitzen zien.

1998ko Landa Garapen Legea 1986tik martxan jarritako Mendi Nekazaritza Legean bezala, eskualdeetan oinarritzen zen landa garapen plangintzak aurrera eramateko. Eskualde bakoitzean beraz, Landa Garapen programa bat proposatzen zen; bertako Landa Garapen Elkartek egingo zuena. Azken hauek, Mendi Nekazaritza Elkarteen ordezkioak izango ziren, lehen ez bezala orain eskualde bakoitzeko bat egongo zelarik. Guztira 18 Landa Eskualde eta Landa Garapen Elkarre eratu ziren, guzti hauek "Landaberri" deituriko elkarre zuzenduko zituelarik. Horrez gain EAEko probintzia bakoitzean, administrazioen arteko elkar laguntza eta koordinazioan jardutera bideratutako Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoa sortu ziren. Landa garapen elkarre jarduna hiru arlo nagusitara bideratu zen nagusiki: azpiegitura eta gizarte ekipamenduen hobekuntza, landa guneeetako zerbitzuen eskaintza eta nekazaritza produktuak merkaturatzeko hobekuntzen eskaintza.

Denbora joan ahala, landa garapen eredu agrarista batetik udalerrir txikitako biztanleria berria erakartzeko etxebizitzaren eskaintzan oinarritutako beste landa eredu batera pasako zen. Landa garapen elkarre eramatean zitu zuten ekintza kopurua murrizten joango zen, konkrezio maila handiagoko plangintza lortuz, programek lortutako heldutasunaren seinale. Horrez gain ekintzen dibertsifikazio prozesua eman zen, gero eta gehiago izanik azpiegiturretara eta nekazaritza eta basogintza garapenean oinarritzen ez ziren ekintzak. Kasu askotan, landa gunee hirietatik zuten kokapen hurbilaz baliatu izan ziren biztanleria berria erakartzeko. Modu horretan landa guneeetan bizi eta hirietan lan egiten zuten biztanle kasu ugari ematen zen. Aurrera eramandako beste hainbat ekintzen artean, landa guneeetan enpresa instalazio berriak sortzea edota eskualdeko turismoa garatzeko planak aurrera eramatea izan zen.

Urte guzti horietan landa garapenera bideratutako hainbat proiektu jarri ziren martxan, bakoitzak helburu konkretu bat zuelarik. Aurrera eramandako programen artean, landa guneeetako biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko helburua zuen EREIN programa aipa daiteke. Horrez gain badira aurrera eramandako beste programa batzuk "Hubiltzen" programa esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2003an aurkezturikoa. Honen helburua

landa guneeetako adineko jendea laguntzea zen, euren beharretara egokituriko zerbitzu eskaintza bat eginez landa eremuan bizitzen jarraitzeko aukera mantenduko zutelakoan. Hala ere, plan hau 2.000 biztanletik beherako udalerrietako landa guneeetara bideratua egonik, hainbat landa zonalde laguntza barik geratu ziren.

Egia da kasu askotan etxebizitza berrien eskaintzarekin herrietako biztanleria gaztetu egin dela, eta landa guneeetako zenbait herrik zuten joera demografiko negatiboarekin amaitu dela. Baina aldi berean tokiko landa izaera desagertu eta nekazal jarduera abandonatu da. Garapen endogenoa gutxi bultzatu omen da, eta horrek landa guneeek inguruko hiriekiko zuten menpekotasuna handiagotu egin du. Zenbait kasutan beraz, hiriek landa guneeak xurgatu eta berezko landa izaera eraldatu egin dute.

Oro har, 1998ko Landa Garapen Legea ez da hasiera bateko perspektibetara heldu. Landa garapen agentziek egindako lana ez dute balio izan nekazal jardueraren abandonu prozesua geldiarazteko. Aurrera eraman diren programak ere eragin gutxikoak izan dira eta kasu askotan hauen garapena oso partziala izan da. Eusko Jaurlaritzako departamenduek parte-hartze txikia izan dute landa guneeetako garapen programetan. Eta horri, administrazio organo ezberdinen arteko kontsentsu falta gehitu beharko litzaioke. Praktikan beraz, landa garapen politikek ez dute legean ezarritako lehentasuna izan. Edozein kasutan, Landa Garapen Legea tresna baliagarri bat suposatzen du landa eremuen garapena lortzeko, baina bere egikaritzea administrazio ezberdinen baliabide eta borondatearen menpekota izaten jarraitzen du.


#### **4. LGPen METODOLOGIAREN BILAKAERA: KONPLEXUTASUNETIK SINPLETASUNERAKO JOERA**

LGPen metodologiaren bilakaeraren azterketa egiteko, hiru informazio iturri erabili dira. 2013. urtera arte erabilitako metodologiaren inguruko informazioa lortzeko Alberdiren testuak erabili dira. 2013tik aurrera emandako berrikusketa prozesua eta 2015etik aurrera martxan jarritako metodologia berriaren inguruko informazio lortzeko berriz, elkarrizketetan eta HAZIko teknikariek emandako 2015-2020 epealdirako landa garapenerako eskualdeko programen metodologia berriaren inguruko dokumentazioa erabili da.

Hasiera bateko eskema metodologikoa AMIAtik ateratako egoeraren diagnostikoan oinarritzen zen batez ere, eskualdearen gai kritikoak kontuan harturik ardatz edo jardun-eremu nagusiak proposatzen ziren, ardatz horietako bakoitzak helburu, estrategia eta ekintza konketuak izango zituelarik.

**1. Irudia. Hasiera bateko eskema metodologikoa.**

**GOIERRIKO LANDA GARAPENERAKO AZTERKETA  
-IKUSPEGI METODOLOGIKOA-**



*Iturria: Goierriko landa garapenerako azterketa eta goimen elkartearen plan operatiboa 2002-2006.*

Landa garapen programak eskualdean oinarriturik egonik, eskualde bakoitzeko landa zonaldeetako elkarteen parte-hartzea guztiz beharrezkotzat hartu da. Hasiera bateko parte-hartze hori oso zabala zen, lan-talde ugari egoten ziren eta agente ugariaren parte-hartzea behar zen. LGPtan informazio estatistiko ugari biltzen zen, izaera deskriptiboko txosten zabalak izaten baitziren

Txostenek izaten zuten gehiegizko informazio erabilera erabilgarritasun eskaseko dokumentuak izatea eragiten zuen. Horretaz gain, administrazioen arteko koordinazio falta bat ikusi zen, lidergo baten gabezia erakusten zutena.

Metodologian zeuden arazoak ikusita, 2007an metodologiak kritika prozesu bat jasan zuen, bertan aterako ziren ondorioetatik metodologia eredu berri bat proposatuko zelarik. Nahiz eta metodologiaren eskema orokorra berdin mantendu hainbat ezaugarri berri agertu ziren.

Txostenek zuten gehiegizko informazioarekin amaitu nahian, informazio kopurua murriztu eta erabilgarriago bilakatu zen. Hemendik aurrera datu estatistikoak ez ziren apenas erabiliko eta erreferentzia iturri moduan iritzia batez ere hartuko zen kontuan. Parte-hartzeari dagokionez ere, eredu ireki batetik bestelako eredu selektiboagora pasa zen, beti ere agente klabeen elkarrizketan oinarritua.

Administrazioen arteko arazoekin amaitu nahian, Landa Garapen Agentzien papera indartu zen, Landa Garapen Programetako ikusle soil izatetik lidergo papera izatera pasako zelarik. "Landaberri" bera ere, Landa Garapen Elkarteen koordinatzaile papera izanik, protagonismo

bat hartuko zuen, bere jardunak administrazioen arteko harremanak erraztuko zituelarik. Landa Garapen Agentzien barruan ere arduradun nagusi baten izendapena egiten hasi zen; erabaki nagusiak hartzeko ardura, pertsona horren gain geratuko zelarik. Figura horren sorrera, planifikazioa arina eta sinplea bilakatzeko nahian ulertu beharko litzateke, figura honek aurrera begira jarraitu beharreko estrategia markatuko baitzuen.

2007-2013 epealdia amaitu zenean, 2015-2020 epealdira begirako planteamendu metodologiko berritua osatu nahi izan zen. 2014. urtea beraz trantsizio urte bat izan zen, aurreko epealdiko landa garapen programen berrikusketa prozesu bat eman zelarik EAEko landa eskualde guztietan. Bertan, 2007-2013ko Landa Garapen programen ebaluazio txostena eta AMIAren berrikusketa osatu zuten.

2007-2013ko Landa Garapen programen ebaluazio txostenean estatistika adierazleak erabili ziren: demografia, ekonomia jarduera, zerbitzuak edota lurralde azalaren inguruko datuak aipatuz. Horrez gain, lan arlo bakoitzeko Landa Garapen Programen analisi eta balorazioa egin zen (Nekazaritzaren garapena, Bizi-kalitatearen hobekuntza edota landa gunearen balioaren errekonozimendua bezalakoak). Horrekin batera, landa garapenari bideratutako laguntzen inguruko analisi bat egin zen. Hori guztia kontuan harturik ondorio batzuk atera zituzten.


AMIAren berrikusketan, ordura arte izandako bilakaera aztertu eta bertan zerrendatutako faktore bakoitzaren bilakaera (positiboa ala negatiboa), faktore bakoitzaren oraingo egoera eta faktore bakoitzaren lehentasun maila adierazi zen. Horrez gain, faktore batzuk baztertu eta beste faktore berri batzuk gehitu zituzten.

2015-2020ko ikuspegi berrituak 2007an emandako aldaketen oinarri berdina jarraitu arren, oso bestelako eskema orokorra izango du. Landa Garapen Programen eskema metodologikoan, hasierako diagnostikoa eta esparru estrategikoa bereiztuko dira.

Hasierako diagnostikoan, hiru elementu kontuan hartuko dira: Balio diferentziala (landa eskualde horrek besteekiko zertan ezberdintzen den adieraziko duena), garapenerako oztupoak (eskualdeak garatzeko izango litzatekeen berezko traba nagusiak) eta AMIA (aurreko urtekoa erabiliko litzatekeena eta eskualdearen Ahulgune, Mehatxu, Indargune eta Aukeraz osaturik egongo litzatekeena).


Eskualdeko esparru estrategikoan 2015-2020ko bisioa legoke, hasierako diagnostikoko hiru elementu horiek kontuan harturik osatuko litzatekeena; hau da, hemendik 5 urtera landa eskualdea nola irudikatu nahiko genukeen deskribatuko lukeen egoera. Ikuskera horren deskribapena aurrekoetan baino zehatzagoa izango da, epealdi laburragoa izanik (5 urte) konkrezio maila handiagoak eskatzen dituelako.

Horrez gain, helburu nagusiak zerrendatu eta eremu estrategikoak izendatzen dira. Azken hauek, oinarrizko jardun eremuak izango dira proposaturiko helburuak lortu ahal izateko. Eremu estrategiko bakoitzean lan talde bat osatuko da, bertan eragile ezberdinek parte-hartuko dutelarik.





2. Irudia. Metodologian erabiltzen den eskualdeko esparru estrategikoaren eskema.

# deko esparru estrategikoak



Iturria: Landa Garapenerako Eskualdeko Programak 2015-2020



3. Irudia. Lan taldeetan erabiltzen diren fitxak. Iturria: HAZI 2015

Landa Garapen Programek ere urteko kudeaketa plan bat izango dute, aurreko urteko LGP berrikusi eta hurrengo urtekoa planeatzeko. Jarraipen planaz Eusko Jauriaritza, HAZI eta Landa Garapen Elkartearen zuzendaritza arduratuko dira.

2015etik aurrera martxan jarritako aldaketek beraz, AMIA bera jardun elementu nagusi izatetik bigarren plano batera pasako dute. 2020ko ikuspegira begirako helburu eta jardun-eremuek berriz, funtsezko elementuak bilakatuko dira. Era horretan, landa garapenaren planteamendua dinamikorragoa eta biziagoa bilakatu da; etorkizunera begirako helburu eta jardun-eremu konkrituak izan arren, urtez-urteko bilakaeraren araberako egokitzapenak egiteko gaitasuna erakutsiko digularik.

LGPen metodologiak bilakaera nabarmen bat izan du azken urteetan; teknikarien lana erraztu nahian praktikotasuna bilatzea izan da helburu, sinplifikaziorako joera bat nagusitu delarik. Jarduteko modua errealistagoa izaten joan da, eta aldi berean ikuskera globalagoa izatera pasa da beti ere eskualde bakoitzeko berezitasunak kontuan hartu direlarik.

Landa eskualdeen diagnostikoa ere bigarren plano batean geratu da, AMIA bera informazio iturri soil gisa erabiltzen hasi delarik. Hemendik aurrera esparru estrategikoa izango da LGPak osatzeko oinarritzko elementua; bertan egongo diren jardun-eremuek, eskualdeak dituen abantailak eta mugak kontuan harturik, helburu estrategikoak betetzen ahaleginduko baitira.

## **5. EDUKIEN BILAKAERA: URIBEKO LANDA ESQUALDEAREN ADIBIDEA**


Uribeko Landa garapen programek Jata-Ondo Landa Garapeneko Elkarteak zuzentzen ditu *Itsasmendikoiren* babes eta laguntzarekin. 2003an osatu zen Uribe eskualdeko lehenengo LGPa. Bertan, Landa Garapeneko elkarteetako eta Itsasmendikoiko ordezkariak gain, hainbat toki administrazio, udal, mankomunitate eta landa eremuko elkarte sozio-ekonomiko eta kulturaletako eta Foru Aldundietako eta Eusko Jauriaritzako teknikari eta ordezkariak parte hartu zuten. Uribeko Landa Garapen Programek 15-20 urtera begirako planifikazioa egiten dute. Kasu honetan, 2007-2013 epealdiko txostena eta epealdi bereko berrikusketa txostena aztertu dira. Azken txosten hau funtsezko da Jata-Ondo Elkarteak 2015-2020ko epealdira begirako plan berria egiteko.

### **5.1 Eskualdearen ezaugarri orokorrak : urbanizazio bizkorreko eremua**

Uribe, Bizkaiko probintziako kostan dago kokatua. Guztira 23 udalerri<sup>1</sup> osatzen dute eskualdea: Arrieta, Bakio, Barrika, Berango, Derio, Erandio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gorliz, Larrabetzu, Laukiz, Lemoiz, Lezama, Loiu, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sondika, Sopela, Urduliz eta Zamudio.

<sup>1</sup> Uribe eskualdearen planoetan Leioa udalerria agertzen da, nahiz eta Eskualdeko Landa Garapen Programan honi buruzko aipamenik ez egin.


**4. Irudia. Uribe eskualdearen (urdinez) kokapen mapa.**



*Iturria: Geoeuskadi + elaborazio propioa*

Uribe, 350km<sup>2</sup> inguruko azalera du eta 2013ko Eustateko datuen arabera 107.188 biztanle bizi dira; biztanleriaren ia bi herenak 6 udalerritan pilatzen delarik (Erandio, Mungia, Sopela, Gorliz, Berango eta Derio). Biztanleriaren gehiengo bat herri guneeetan bizi arren, badira hala ere 30.316 biztanle landa eremuan bizi direnak. Azken urteetan landa zonaldeetako biztanleria izan da proportzionalki gehien hazi dena.

**5. Irudia. Uribeko biztanleria kopurua 2013an.**



*Iturria: Uribeko Berrikusketak Txostena + elaborazio propioa*

Eskualdean 331 biztanle bizi dira kilometro karratuko, Bizkaiko biztanleria dentsitatea (522,5bizt./km<sup>2</sup>-ko) baino nabarmen txikiagoa dena. 2001-2007 epealdian eskualdeak biztanleria hazkunde azkarra jasan arren (%22 ingurukoa), azken urteotan hazkunde hori nabarmen moteldu da %8,32koa suposatuz. Emandako biztanleria hazkunde horrek eskualdea gaztetu egin du, 2007 eta 2013ra 65 urtetik gorako adina dutenen proportzioa %18,9a izatetik %16,73a izatera pasaz, Uribek duen dinamika bereziaren erakusle dena.


Uribek hiru eskualde errealitate ditu: Txorierri, Mungialdea eta Uribe Kosta. Txorierri tradiziozko industria gunea da ingurumenarekiko urbanizazio bortitza jasan duena. Uribe Kostaren kasuan, geroz eta handiagoa den urbanizazio intentsitatea dago, demografikoki dinamikoen diren udalerriak bertan aurkitzen direlarik. Mungian berriz, nekazaritzaren balio handiagoa da eta urbanizazioa txikiagoa, hala ere eraikuntza tasa hazkorrak ditu.

Aipatzekoa da, hiru eskualde errealitate izateaz aparte, 2 area funtzionaletan banandua dagoela. Alde batetik Bilbo Handiko Area funtzionala, bertan Txorierri eta Uribe Kosta sartzen direlarik, eta bestalde Mungialdeako Area funtzionala, Mungialdea bera sartzen delarik.

Uribek erakarmen ahalmen handia du: kosta eta barrualdea, hondartzak eta ingurune naturala, ondare naturala, kultural, erlijioso, historiko eta arkitektonikoarekin batera. Uribek ere baditu beste ezaugarri bereizgarri batzuk, Burdinazko Gerrikoa, Txakolina eta errota adibidez. Aisialdi turismoa izaten da Uriben ematen den turismo forma nagusia, kostan hondartza turismoari begirako bigarren etxebizitzaren fenomeno oso hedatua dagoelarik. Eskualdea Bilboko hirigunetik gertu egoteak berezitasun bat eman dio inguruneari, turismoa edota bestelako sektore ekonomikoak garatzeko aukera eman dion arren, garraio azpiegitura eta ekipamendu garrantzitsuak kokatzeak (Loiuko aireportua eta Bizkaiko Parke Teknologikoa kasu) ere eragin negatibo bat ere izan baitu.

## **5.2 Bere nekazal eremuaren ezaugarriak**

Uribeko landa zonaldea eskualdearen azaleraren %87a hartzen du, 2013ko Eustateko datuen arabera 30.316 biztanle bizi dira bertan. Horrek 107,57ko biztanleria dentsitatea izatea eragiten du, Bizkaiko edota EAE mailako biztanleria dentsitatea baino nabarmen altuagoa dena. Landa gune gehietan gertatzen den bezala maskulinitasun tasa handiagoa da landa eremuan herri eta hiriguneetan baino. Hala ere esan beharra dago Uriben kasuan bai landa zonaldeetan zein hiriguneetan emakumeen presentzia handiagoa dela gizonezkoena baino.

**6. Irudia. Uribeko biztanle-entitateen landa-izaeraren sailkapena.**

*Iturria: Mendikoi + elaborazio propioa*

Eskualdeko udalerrietako biztanleria-entitateak erruraltasun mailaren arabera 9 kategoriatan banatzen dira, G1etik G8ra doazenak erruraltzat hartzen dira eta G9 kategoria berriz zonalde urbanizatutzat hartzen direnei dagokie. Uriberen kasuan G5 kategoriadun (Landatar ez deprimitua) landa-izaerako biztanleria entitaterik ez dago.

Uribe eskualdearen kasuan oso egoera ezberdinak topa genitzake zonaldearen arabera. Uribe Kosta adibidez gune urbanoa da eta Txorierriko haran ondo ere nahiko urbanoa da, Mungialdea berriz Landatarragoa dela esan genezake. Oro har, ekialdeko eta iparraldeko zonaldeak dira landa-izaera hobekien mantentzen dutenak, hauek baitira hain zuzen Bilbo Handiaren eraginpetik urrunen daudenak.

Lehenengo sektoreari dagokionez, azpimarratzekoa da bertako ustiatgien batz besteko tamaina Bizkaiko batz besteko tamainaren ia erdia dutela (4,3Ha ustiapeneko 8,4 izan beharrean). Lursailak zatikatuagoak aurkitzen dira beraz, eta tamainan gero eta txikiagoak izateko joera bat ikusten da. Arazo horri aurre egiteko lursailak batzeko saiakerak egin dira, batez ere Butroi ibarrean, hala ere emaitzak ez dirudi oso nabarmenak izan direnik.

Lehenengo sektorean profesionalki jarduten duten pertsona kopurua txikia da, biztanleriaren %1,98ak(Eustat 2001) egiten du lan arlo horretan. Horrez gain, sektorean jarduten dutenen artean gazteak oso kopuru txikia dira, 1999an esaterako zoruen titularren %62a baino gehiago 55 urte baino gehiagoak ziren, horrek belaunaldi ordezkapen falta erakutsiko ligukeelarik.

Batez ere negutegietan produzitzen diren barazki eta fruten sektorea da garrantzi handienekoa (Mungialdean eta Txorierrin batez ere). Fruitu zaintzan txakolinaren produkzioa aipatu beharko genuke, gehien bat Bakion ematen dena joera hazkor batekin. Uribe gainera Bizkaiko txakolin ekoizlerik handiena suposatzen du. Abeltzaintzan behi esneen sektoreak pisu handia galdu du, okelerako behi azienda berriz zertxobait igo den bitartean, hala ere azken honek gora beherak eduki ditu. Azkenik, basogintzari dagokionez garrantzia hartzen ari den sektorea litzateke, bertako pinu eta eukaliptoen ustiapenean oinarritzen da, kasu gehienetan izaera pribatukoa dena.

Erregistroen arabera eskualdean 1700 abeltzaintza ustiategi inguru daude, horietatik erdia landa guneeetan kokatuak daude. Azken urteotan abeltzaintza ustiategien tamaina handitu edo ustiategi berriak sortzeko joera bat ikusi da, sektore hau hartzen ari den garrantziaren erakusle dena.


Lehenengo sektorearen inguruan hainbat elkarte daude garapenerako laguntza eskaintzen dutenak (ItsasMendikoi, Garaia, Lorra, Aberekin, Neiker...etab). Hauen ahaleginari esker espezializazio eta profesionalizazioa prozesu bat eman da, batez ere teknifikazioaren eta bertako produktuen parte bat Label gisa merkaturatuz.

EREIN programaren bitartez ere zerbitzu berriak eskaini ahal izan dira eskualdeko zenbait udalerrietan (Arrieta, Gatika, Meñaka eta Laukizen). Hala ere zerbitzu alorrean ere aipatu beharra dago zenbait udalerritan ez dagoela hezkuntza zentrorik; Barrika, Fruiz, Gamiz-Fika eta Maruri-Jataben esaterako. Horrez gain Meñakan eta Arrietan haur hezkuntzako zentroa baino ez dago. Egoera horretan, haurrak beste zentroetara eramateko eskola garraio on baten eskaintza funtsezkotzat ikusten da.

Osasun arloan ere EREIN programa eraikin berrien sorrera eta hobekuntza egiten ahalegindu da; batez ere Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Lemoiz, Maruri-Jatabe eta Meñakan. Dagoeneko udalerrri guztiek dute oinarritzko osasun zentroren bat. Adinekoentzako zentroi dagokionez, eguneko zentroen kopurua handituz joan da erresidentzien kopurua zertxobait murriztu den bitartean.

Landa eremuetan nahiz eta merkataritza eskaintza bereziturik ez egon, oro har, inguruko herrietan eskura dago. Merkataritza zerbitzu eskasiak kutxazainen urritasunean edota premiazko produktuak lortzeko salmenta establezimenduen faltan antzeman daiteke. Sakabanatuak dauden landa eremuetako auzo eta baserriei ere kalitatezko garraio publikoa eskaintzeko zaitasunak ikusten dira.

## 7. Irudia. Uribeko udalerrien artifizializazio maila 2013an.




*Iturria: Uribeko Ebaluazio Txostena + elaborazio propioa*

Eskualdeko udalerrien artifizializazio maila udalerrien tamainarekin eta bertan eman diren lurren okupazio eta eraikuntza prozesuen arabera litzateke. Uribe eskualdearen kasuan, %14,27ko batz besteko artifizializazio maila ematen da, Bizkaiko %10,37arekin konparatuz nabarmen altuagoa dena Urbanizatua eta urbanizagarri den landa zonaldeetako azalera artifizializatu ere ohikoa baino artifizializazio maila altuagoa erakusten digu, bai zonalde erruralean zein erruraltzat hartzen ez diren guneetan. Izan ere Uribeko landa guneetako azaleraren %6,66a artifizializat hartzen da, urbanizaturik baitago. Eta aldi berean, azaleraren beste %1a artifizial bihur daiteke lurzoru urbanizagarritzat hartzen direlako.

Erruraltzat hartzen ez diren zonaldeetan, azaleraren %23,02a urbanizatua egotearen ondorioz artifizializat hartzen da eta azaleraren beste %4,81a azalera urbanizagarri izatearen ondorioz artifizializatu daitezkeen eremuak dira. Beraz, gune hauek urbanizatzeko azalera portzentaje handiagoa izaten dute, inguru hauetan ezarriko baitira jarduera ekonomiko berri gehienak.

## 8. Irudia. Uribeko Zonalde Erruralak.

**Iturria: Geoeuskadi + elaborazio propioa**

Landa zonaldeetako nekazal azalera 6.200ha ingurukoa da, beste 5.900ha landa zonalde bezala hartzen ez diren inguruetan daudelarik. Azken urteotan, landa zonaldeetako nekazal azalera zertxobait murriztu den bitartean, erruraltzat hartzen ez diren zonaldeetan nekazal azalera nabarmen igo da.

Lurzoruaren gaineko presioa nabarmen igotzearen ondorioz, gorde beharreko lurzoruak zehaztea beharrezkotzat hartu da. Hala ere, administrazioa mailan bai udal teknikarien aldetik zein sektoreko arduradunen artean landa eremuko kontuekiko sentsibilizazio falta dagoela uste da.

Beraz, Uribeko landa zonaldeak berezitasun jakin batzuk erakusten ditu; batez ere, bere erregimen demografikoan (dentsitate demografiko altua, biztanleria gazteagoa eta emakumezkoen presentzia altuagoa) eta bere kokapenean (hiriguneetatik hurbil egotea, inguru dinamikorra izatea etab.) ikus genezakeena.

### **5.3 Edukien bilakaera**

Atal honetan proposaturiko helburua Uribeko eskualdeak Landa Garapen Programen inguruan izandako edukien bilakaera aztertzea litzateke. Bertan azken bi epealdietako eskualdeko informazioa erabili da edukien bilakaeraren azterketa egin ahal izateko. Horretarako, 2007-2013 eta 2015-2020ko LGPetako AMIA, helburuak eta estrategiak aztertu dira, konparaketa egin ahal izateko. Horrez gain, azken epealdiari buruzko informazio gutxi zegoela kontuan harturik, Jata-Ondo Elkarteko arduradun batekin elkarrizketa bat egin zen, era horretan informazioa osatu eta bertan lan egindakoek eskualdeko edukien bilakaera orokorrari buruz zuten inpresioa jaso nahi izan zen.

#### **5.3.1 2007ko Uribeko LGParen edukiak: AMIA edukien planteamendurako tresna nagusia**

2007an Jata-Ondo elkarteak AMIA berri bat osatu zuen Uribe eskualdeko ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak kontuan harturik. Horren ondoren, eskualdera begirako ardatzak (edo jardun-eremuak) ezarri ziren, 2003an lehenengo plana egitearekin batera osatutako ardatz berdinak izango direnak. Ardatzak zeintzuk izango ziren behin finkaturik, helburu nagusi batzuk aurkeztu ziren; aldi berean helburu horiek betetzeko garatu beharreko estrategiak zerrendatu zituzten.

Sortutako AMIA kontuan harturik, helburu estrategiko batzuk ezarri ziren bost ardatz ezberdinetarako zuzenduak izango zirenak. Era horretan, ardatz bakoitzak helburu jakin batzuk izango zituen eta helburu bakoitzeko lortzeko estrategia jakin batzuk izango zituen.

**1. Taula. Uribe eskualdeko 2007-2013epealdirako Eskualde Landa Garapen Programako AMIAren ahultasun eta mehatxu taula.**

<b>AHULTASUNAK</b>	<b>MEHATXUAK</b>
<b>Sektorearen beherakada</b>	<b>Baserriaren desagerpena</b>
Espezializazio falta	
Ustiapen kostu altuak, ustiapen txikiak eta errentagarritasun baxua	
Lurra lortzeko zailtasunak: transmisio falta, herri lurren eskasia...	
Lan eskua lortzeko zailtasuna	
Sektorearen balorapen eskasa	
<b>Sentsibilizazio eskasa, bai gizartearen zein administrazioaren alde tik</b>	<b>Lehen sektorearen erakargarritasun falta</b>
<b>Tradiziozko lehen sektorearen irudiak → Sektore profesional eta teknologikoarena kaltetu</b>	<b>Urbanizazioaren presioa</b>
<b>Balio erantziaren ekarpen eskasa</b>	<b>Tradiziozko merkatuen beherakada eta intrusismoa</b>
<b>Txakolin upategi txiki askoren presentzia</b>	<b>Abeltzantzako hondakinek in ingurumen arazoak</b>
<b>Basogintza garraioaren baimenak kontrolatzeko udalek dituzten arazoak</b>	<b>Elikagai industriaren gaineko araudiak ez ditu elikagai industria txikien berezitasunak kontuan hartzen, hori garapenerako oztopo delarik</b>
<b>Baso bideen sarrera eskasa</b>	<b>Uribe turismo gunetzat ez hartzea</b>
<b>Turismo sektore zatitua eta deskoordinatua</b>	<b>Diru sarrera gutxi ematen dituen urtaroko eta eguneko turismo eskaera</b>
<b>Turismo produktuen urritasuna, baliabide askoren turismorako egokitasun falta</b>	<b>Bilboren hurbiltasuna, gehiegizko eragina? Herritarren bizitzan, aisialdian eta merkataritzan eragin</b>
<b>Uribe ez da eskualde bakar bat bezala ikusten, ez herritarren partetik ezta udalerrien partetik</b>	
<b>Gizarte, kultura eta kirol ekipamenduen probetxu txikia</b>	
<b>Heziketa zentron falta herri txikietan</b>	
<b>Beharrezkoa den gizarte laguntza eskaera txikia landa eremuen aldetik</b>	
<b>Babespeko etxebizitzaren eskaintza arazoak landa eremuetan</b>	
<b>Etxe unifamiliarren hedapena landa eremuetan udalerri kanpokoak diren herritarrek okupatuak → Sentimendu herrikoia ren galera, partaidetza falta. Herrian ezarri berriak herriko dinamika sozial eta kulturalan sartzeko zailtasuna</b>	
<b>Landa eremuetara egokitu gabeko garraio publikoa</b>	
<b>Eskualdeko administrazioen arteko koordinazio falta</b>	
<b>Landa eremuetako banda zabalaren estalduran "zulo beltzak"</b>	
<b>Oinarritzko azpiegiturretan hutsunak</b>	
<b>Saltoki txikien eta zerbitzuen eskasia</b>	

*Iturria: Uribe Eskualdeko Landa Garapen Programa 2007-2013*

**2. Taula. Uribe eskualdeko 2007-2013pealdirako Eskualde Landa Garapen Programako AMIaren indarren eta aukeren taula.**

INDARRAK	AUKERAK
Barazki zaintzaren tradizioa	Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak merkatu handietatik hurbil
Klima eta orografia egokia barazkiak landatzeko eta merkaturatzeko	Elikagai azoka ugari ekoizle txikiak euren produktuak merkaturatu dezaten
Ahalmen handiko lurraldeak Butroe ibarran	Txakolinaren produkzioa gorantz doan sektorea eskara hazkorraren ondorioz
Txakolinaren egituratzea eta garrantzia Uriben	Lehenengo sektorean teknologia berrien ezarpena administraziaren aldetik
Jatorri deiturak dituzten produktuen existentzia, Label edo produktu ekologikoen izendapenaren bitartez.	Gaztenek erakundearen presentzia belaunaldi ordezkaritza bermatzeko iniziatibekin
Lehen sektore egituratua, organismo eta erakunde ezberdinekin laguntzarekin	Zura lehengai gisa, basogintzaren mekanizazioa eta basogintza ziurtagiria, ustiapen etekinan hobetzea.
Landa eta hiri gunearen arteko elkarbizitza eta elkar erkarpea	Nekazaritza produktuak merkaturatzeko bide berriak eta merkaturatze zirkuitu laburrak
Turismo lan koordinatua Jata-Ondoren eskutik eskualdearekin eta lau turismo bulegoekin ( Sopela, Plentzia, Bakio eta Gorlizkoak)	Landa eremuetan jarduei berriak ezartzea
Ahalmen turistikoa handia: kostaldea eta barrualdea, hondartzak eta ingurune naturala, ondare naturala, kulturala, erlijioso, historikoa eta arkitektonikoarekin batera.	Banda zabala eta teknologia berriak landa eremuetan
Turismo eskaintza hobetua	Landa kulturaren gaineko interes gorakorra turismoaren bidez
Bizkaian eskualdearen ezagutza dago	EAE-ra eta bereziki Bizkaia doazen turistek kopurua gora egin du
Asteburuetako turista kopuru handiagoak ekonomia bultzatu	Negoio turismoa landa turismoaren osagarri
Udaleen arteko zerbitzu eta programen elkar banatzea	Eskualdeek turismo eskumena duten administrazioaren aldeko apustua egitea, turismoa indartzeko unitate gisa
Herrietako auzoetan tradiziozko festak berrantolatzen dira, bizitza soziala eta landa kultura berpizteko	Bilbotik eta Urdaibitik gertu egoteari probetxu ateratzea, Bilbora doazen bisitariak erakartzeko
Gizarte zerbitzuen makomunitateak daude Txorierri, Mungialdean eta uribe Kostan	Haur-eskolen Partzergoa sortu eta indartzea
Udalek babespeko etxebizitzaren sustapen ekimenak egitea	Teknologia berriak garatzea zerbitzu pertsonalizatu bat eskaini ahal izateko
Komunikazio onak Urdaibai eta Bilbo Metropolitanarekin	

*Iturria: Uribe Eskualdeko Landa Garapen Programa 2007-2013*

**Lehenengo sektoreko ardatzean**, hasierako helburua nekazaritza eta abeltzaintza jarduei mantentzea zen. Helburu hori betetzeko hainbat estrategia aipatzen ziren. Sektoreak lehiakortasuna hobetzea produkzioaren balioan igoera bat lortuz. Aldi berean, nekazaritza kanpo ekintzak bultzatzea (turismoa edota eskulanak) sektorea aurrera joan ahal izateko. Ekoizpenari dagokionez ere dibertsifikazio bat ematea estrategikotzat hartzen zen. Elkarrekin edo kooperatibak sustatzeko beharra ikusten zen, ekoizpen merkaturatze edota eraldaketa arloan lagungarri izan zitezkeelako. Oinarrizko beste estrategia bat lurra lortzea erraztea zen, bertan administrazio aldetik presio urbanistikoa geldiarazteko politikaz aparte, *Lurrarek* bezalako elkarteak laguntzak eskaini zitzaizkeen. Ustiategien tamaina txikia

kontuan harturik eta honek lehiakortasunerako suposa zezakeen oztopoa kontuan harturik, lur sailak batzea beharrezkotzat ikusten zen. Hala ere, nekazaritza herrixken sorrera edota lur sailen alokairua sustatzea beste aukera posibleak ziren. Lur eskaintza bat izatearekin batera ustiapen berrien sorrera oinarritzotzat hartzen zen. Bertan, nekazaritza ekologikoa edota landare apaingarrien salmentara bideratutako ustiategien sorrera bultza zitezkeen alternatiba gisa. Abeltzaintzaren kasuan, sektore berriak sustatu eta zeudenak indartzeko beharra ikusten zen. Profesionalen jardueraren balorapena eta laguntza oinarritzotzat hartzen zen, bertan jarduten zutenen bizi baldintzak hobetu daitezkeelako eta aldi berean belaunaldi berriek sektorearekiko izan zezaketen interesa baldintza zezakeelako. Profesionalen balorapena prestakuntzari behar besteko garrantzia emanaz ere lor zitezkeen, horrek ere sektorea lehiakorrago izatea lagunduko zuelakoan.

Bigarren helburu gisa, ekoizle berriei bidea erraztea proposatu zen. Horretarako, ustiapenen transmisio zerbitzu bat konfiguratzeko proposatu zen sektorean lan egin nahi zutenei sarrera erraztuz. Horrekin batera, informazio eta prestakuntza profesionala sustatu, gazteenek elkarrearen papera indartu eta lehen sektorearen irudia hobetzeko asmoz marketin planen garapena bultzatu nahi zen.

Hirugarren helburua sentsibilizazio eta kontzientziatzea zen. Bertan bai gizartearen zein administrazio ezberdinak sentsibilizatzea oinarritzotzat hartzen zen, hala ere sektorea ondo koordinatzea eta ekoizle berriak lortzeko jarraitu beharreko urratsak argi ezartzea funtsezkoak ziren ezarri ziren helburuak bete nahi baziren.

Laugarren helburu moduan, eskualdeko basogintza mantentzea eta aniztea proposatu zen. Estrategien artean, kalitateko ziurtagiria sustatzea, baliabideen eraldaketa bultzatzea, baso bideen sare egokia sustatzea eta jabego egitura hobetuz baso guneen kudeaketa bateratua bultzatzea proposatu ziren.

**Turismoaren ardatzean**, helburu nagusi moduan eskualdean turismo jarduera zehatzago, osatuago eta koordinatuago bat izatea zen, ikuspegi berezi eta orokor bat izango zuena. Bigarren helburua berriz, jarduera ekonomikoa sortzen zuen turismo sektorea garatzea zitezkeen, bisitari eta egonaldi kopurua handituz eta inguruko gunen turistikoetatik (Bilbo eta Urdaibai) turistak erakarri turismo gunen bereizi bat izatea lortuz.

**Izaera eta eskualdeko kohesioa** ardatzeko helburu gisa, parte izatearen sentimendua indartu eta landa eremuen dinamika sozial eta kulturalak laguntzea zen. Bertan, elkarte kultural eta dinamizatzaileen presentzia bultzatu eta biztanleei herrietako bizitzan integratzeko eta parte hartzeko erraztasunak emateaz aparte, azpiegitura sozial eta kulturalak probetxu atera behar ziren, bertako ondare historiko eta kulturala berreskuratzearrekin batera. Herrien hazkunde kontrolatu eta iraunkorra bultzatzea beste funtsezko helburu bat izango zen.

**Bizi kalitatearen ardatzean**, bi helburu nagusi aipatzen ziren. Alde batetik herritarren bizi kalitatea hobetzea eta landa eremuetako biztanleak eta zerbitzu eta ekipamenduak eskura izatea bermatzea eta horretarako egokitzapenak egitea izango zen helburuetako bat, bertan,

hezkontza, garraio publiko, etxebizitza eta merkataritza zerbitzuen eskaintza hobetzea beharrezkotzat ikusten zelarik. Beste helburu nagusia oinarrizko azpiegiturak bermatzea proposatzea izango zen, batez ere gasa, argindarra edota saneamendua bezalako arloetan.

**Ekonomia aniztearen ardatzean**, inguruarekin “bateragarri” ziren enpresa txikiak landa eremuetan ezartzea helburu nagusizat hartzen zen. Bertan, zerbitzu sektorearen garapena, enpresa txikien ezarpena eta teknologia berrien araberako lana antolatzeke eredu berrietan oinarritzen ziren jardueren ezarpena bultzatzea proposatzen zen.

### **5.3.2 2015-2020 epealdirako Uribeko LGParen edukiak: Paisai estrategiaren eskema berritua**

2015-2020 epealdira begirako LGPan, aurretik erabilitako AMIA berrerabili zuten, bertan garrantzi gutxiko elementuak baztertu eta ideia berriak birformulatu zituzten. Berrituriko AMIA horrekin, ardatzen eta helburuen formulaketa egiten hasiko dira, beti ere balio diferentzialak eta oztopoak oinarrizko baldintzatzaileak izango direlarik. Epealdi honetarako 5 ardatz izatetik lau izatera pasatzen da, bizi kalitatearen ardatza desagertuz. Gainontzeko ardatzak berdin izendatuak izango dira, baina hemendik aurrera “ardatz” gisa izendatu beharrean “jardun-eremu” bezala ezagutuko dira. Guzti honen eskema Paisai Estrategia deituriko adierazpen grafikoaren bitartez adierazi egingo da.

**Lehenengo sektorearen jardun-eremuak** bi helburu nagusi ditu, alde batetik langile berrien sarrera bultzatzea litzateke, beti ere lehenengo sektorearen inguruko irudi positiboa transmitituz eta lur partzelak eskuratzeko laguntzak eskainiz. Bestaldetik, eskualdeko nekazal eta abeltzaintza produktuei balioa ematea merkaturatze dibertsifikazio edo bestelako neurrien bitartez. Helburu hauek bete ahal izateko bertako produktuen kontsumoa sustatuko luketen hainbat ekimen proposatu dira; garagar biltegiak, hiltegiak edota kontserben produktiorako aretoen sorrera esaterako. Bertako Sentsibilizazio kanpainak ere abiarazi nahi dira hitzaldien eta kurtsoen bitartez edota bertako produktuen kontsumoa bultzatuz. Nekazal produktioa dibertsifikatzeko asmoarekin kiwia edota sagardo produktiora bideratutako sagarren produktioa garatzea aurreikusten da. Merkaturatze arloan egindako proposamenak bertako produktua merkaturatzeko erraztasunak bilatzen saiatzen dira, online bidezko salmentaren bidez edota elikagai zentro handiek bertako produktuen aldeko apustua eginez.

**Turismoaren jardun-eremuak** helburu ugari ditu. Horien artean, eskualde mailako istorio belikoen inguruko produktu turistikoa garatzea (Burdinezko gerrikoa adib.). eskualdeko elementu turistikoei etekin ateratzea (Gaztelugatze, Butroiko Gaztelua...) edota erakundeek turismoarekiko duten sentsibilizazioa handitzea lirateke.

**Beste jarduera ekonomikoen jardun-eremuan**, enpresek landa eremuetan ezartzeko espazioen dinamizazioa burutzea aipatzen da helburuen artean. Horrez gain eskualdeak dituen aukerak kontuan harturik negozio aukera berriak bilatu nahi dira, beti ere udalek

ekintzaileei laguntza eskainiz. Helburu hau industria sortzailea garatuz edota agenteen arteko komunikazio eta koordinazio sinergiak sortzen lortu nahi da. Aldi berean, formakuntzaren bidezko eskualde profesionalizazio eta balio agroindustriala sustatzea beste helburu bat litzateke, profesionalizazio planen bitartez eta landa guneeetako aukerak eta lan esperientziak, jardunaldien bidez ikustaraziz lortu nahi dena.

**Identitatea eta eskualde kohesioa deituriko jardun-eremuan**, bizikletentzako bide sarea garatu edota Bilbo eta inguruko eskualdeen konektibitatea hobetzea proposatzen dira eskualde dinamikotasuna hobetzeko helburu gisa. Udalerriek energia berriztagarrien aldeko apustua egitea edota landa eremuetako internet sarearen eskaintza hobetzea proposaturiko bestelako helburuak dira. Horrez gain, eskualdeko udalerriek landa garapenaren inguruan dituzten irizpide komuna lortzea eta eskualde ikuskerako proiektuen lanketa koordinatua lortzea ere helburu garrantzitsutzat hartu dira eskualdeko agente ezberdinen arteko koordinazio faltari aurre egiteko. Arlo honetan egindako proposamenen artean eskualdeko produktuen merkatuak garatzea edota eskualdea eta bertako baliabide turistikoak ondo seinalezatzea egongo ziren, kasu bietan eskualdeak duen balio erakutsi nahi delarik. Horrez gain, biomasaren eta bizikleta martxen sustapena egin nahi da, ingurumenaren aldeko ekintzak izateaz gain eskualdearen identitatea mantenduko dutelarik.

### **5.3.3 Landa garapen programetako edukien izaera agrarista batetik ikuskera globalago baterako aldaketa**

2007 eta 2015eko Uribeko LGPetako edukietako helburuak oso berdintsuak izan arren, egia da ardatzetako proposamenetan ezberdintasunak antzematen direla. Basogintzari dagokionez adibidez, ez da gai horren inguruko proposamenik ematen 2015eko LGParen edukietan 2007ko LGPan funtsezko problematika bezala aurkeztu arren. Turismoaren eta Gainontzeko Jarduera Ekonomikoen ardatzak garrantzia hartzen doaz, lehen sektorearen inguruko proposamenak garrantzia galtzen doazen bitartean. Identitatea eta eskualde kohesioaren ardatzari dagokionez esan beharra dago, bai 2007ko zein 2015eko proposamenetan ez dela debekurik edo udal antolakuntzari zuzendutako gomendiorik egiten zenbait politika urbanistiko alde batera usteko.

Orokorrean, AMIaren sinplifikazio bat ematen da, ideia globalagoak formulatzen hasten dira eta esangura txikiko ideiak baztertu egiten dira. Estrategien kasuan berriz, bost estrategia edo jarduera-eremu izatetik lau izatera pasatzen da, bizi-kalitatearena desagertuz. Aldaketa honek argi erakutsi lezake, ordura arte landa guneeetako herritarren zerbitzu edota azpiegituren eskaintzan zentratutako joera horrekin amaitu nahi dela. Hala ere Uribe eskualdearen kasuan garraio publikoaren eskaintza on bat egotea funtsezkoa litzateke. Horrez gain, planifikazioan aurrera eraman beharreko ekintzak zehatzagoak bilakatzen dira. Aldaketa hauek eman arren problematikek dituzten garrantziaren hierarkizazio bat eman gabe jarraitzen da eta horrek ez du usten lehentasunezko jardunak zeintzuk diren zehazten. LGPetan proposatzen diren eskualdeko estrategiak araudi mailan eragiteko duten

ezintasuna nabarmena da, administrazio publiko ezberdinen eskumenak Landa Garapen Elkarteen gainera baitaude, proiektuak aurrera eramateko dituzten zailtasunak ere ugariak direlarik.

## 6 BALORAPENA

Uribe kontraste handiko zonaldea da, bere barne hiru eskualde ezberdinez osatua<sup>2</sup>dago haien artean ezberdintasun nabarmenak dituztenak. Hala ere, Uriberen mugaketa bera ez dago hain era argian adierazita, zenbait mapetan Getxo eta Leioa barne hartzen dituztelako, Uribe osatuko luketen 23 udalerrri horien parte ez izan arren. Uribek ez du eskualde izaera markaturik eta hori nabarmena da bertako udalen eta herritarren ikuskeran.

Bere mugaketa gainera, ez dator bat lurralde antolakuntzan erabiltzen diren area funtzionalekin. Eta beraz landa garapenaren inguruan ematen diren antolakuntza programek ezin dute Mungialdea edo Bilbo Handiaren area funtzionaletako LPP-en proposamenak aintzat hartu. Lurralde antolakuntza arloan egiten diren proposamenak gainera ez dituzte Landa Garapen Programen proposamenak kontuan hartzeko ohiturarik, landa guneen babesa asmo hutsetan geratzen delarik.

Bilbo Handiarekiko hurbiltasunak nahiz eta aukera asko eman turismoa garatzeko, nekazal produktuak merkaturatzeko edota enpresa berriak erakartzeko, egia da gehiegizko menpekotasunak ere nabarmen kaltetu dezakeela eskualdea.

Azken hamarkadetan eraikitako garraio azpiegitura handiek (Txorierri eta Uribe Kostako korridoreak, Bilboko metroa, Bilbo- Mungia autobidea etab.) eta urbanizazio prozesuek<sup>3</sup> nekazal lurrak murrizteaz aparte, inpaktu paisajistiko nabarmen bat eragin dute ingurunean. Leku askotan aurrera eramandako etxe unifamiliarren urbanizazio eredia ez da uste bezain aproposa izan. Nahiz eta landa izaerako berezko etxe tipologia mantentzeko aukera bezala aurkeztu, etxe blokeekiko lur okupazio handiagoa suposatzen dute eta kasu askotan, indibidualizazio eta gizarte segregaketa handiagoa. Garraio azpiegituren kasuan, eskualdearen lehiakortasun eta hazkunde ekonomiko bat lortzeko elementuak bezala aurkeztuak izan arren, egia da beste lurraldeekiko menpekotasuna handiagotu dezaketela.

Administrazio publikoek diskurtso kontraesankorra garatua dute landa garapenaren inguruan, landa gunek garatzeko politiken defendatzaile moduan agertu arren praktikan landa gunek kaltetzen dituzten hainbat ekintza burutzen baitituzte. Era berean gizarteak lehenengo sektorearen balioa gutxieteko ohitura du, bere ekarpen ekonomikoaren

---

2 Oharra: Berez hiru eskualdeen baturaz osatua dago; Mungialdea, Txorierri eta Uribe Kosta. Hala ere Uribe Kosta osoa ez da kontuan hartzen, Getxo eta Leioa ez baitira Uribeko eskualdean sartzen.

3 Lurralde Antolakuntzako Gidaleroek hazkunde hautatuko gune bezala izendatzen dute Uribe Kostako zonaldea, aldi berean Mungia eskualde mailako zentro gune bezala kokaturik, beste hazkunderako gune bezala hartzen da . 1997an eratutako LAG hauek, ondoren emango den hazkunde urbanistikoaren eta lurralde okupazioaren aurrekaritzat har genezake.

araberako balioa ematen baitzaio. Gizartean landa babestearen aldeko hainbat ekimen aurrera eraman arren, gizartean ez dago gai horren inguruko benetako kontzientziarik.

Landa garapen programek azken hamarkadan arlo metodologikoan zein edukien planteamenduan izandako sinplifikaziorako joerak, landa problematika ikuskera globalago batetik aztertzea eragin du. LGPak dokumentu praktikoa eta dinamikorrakoak bilakatu dira eta errealtateari era erresagoan aurre egiteko gaitasuna lortu dute. Programa hauen planteamendua hobetu egin den arren, lortzen diren emaitzak ez dira beti esperotakoak izaten, etorkizunera begirako planteamendu errealistek zailtasunez beteriko bidea irudikatzen baitute.

Landa garapen programetan ondo islatu beharko litzateke ze nolako landa garapen eredia defendatu nahi den, era horretan kontraesankorrak izan daitezkeen proposamenak saihesteko. Udalerrietako politiketan gehiago eragiteko gaitasuna izan beharko lukete, lurren okupazio handia eragin dezaketen urbanizazio sakabanatuekin amaitu nahian, araubide baten garapena eginez. Era berean, eskualdeetako gizarte dinamiken jarraipen berezia egin beharko lukete, hauek landa zonaldeetako bilakaeran uste baino eragin handiagoa baitute. Hala ere, landa garapen programen autonomia maila handiagotu egin den arren, bestelako organo administratiboan menpeko izaten jarraitzen du. Administrazio publikoek gainera, ez dute landa garapenaren aldeko apustu sendorik egiteko joerarik, eta horrek eragin zuzena izaten du landa garapen proiektuetan lortzen diren emaitzetan.

Landa guneen benetako garapena lortu nahi bada, funtsezkoa da administrazio eta erakunde guztiek kontuan hartu beharreko alde aurreko printzipio batzuk ezartzea. 1998ko Landa Garapenaren Legeak administrazio ezberdinen benetako babesa beharko luke eta lurralde antolakuntza mailako plan guztietan kontuan hartu beharko litzateke. Edozein kasutan, landa guneen benetako garapena ez da soilik administrazio ezberdinek dituzten inizatibean esku egon behar, gizarteak ere betekizun handia du arlo horretan. Eguneroko ekintzek, kontsumo ohiturek edota gizarte balioek eragin handia izaten dute, eta beraz, hauek aldatzea eta landa garapenari begirako gizarte bat osatzea funtsezkoa litzateke.

## 7 ERREFERENTZIAK

ALBERDI, J.C., (2004). Colaboración interinstitucional en el desarrollo rural: Aciertos y fracasos de la ley de desarrollo rural del País Vasco. *Boletín de la A.G.E. N.º 38*, 131-151.

ALBERDI, J.C., (2008). Evolución y progreso de las asociaciones de desarrollo rural en Gipuzkoa, un modelo necesitado de mayor autonomía y apoyo institucional. *Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta" (INGEBA). Lurralde: Investigación y Espacio 31*, 143-166.

ALBERDI, J.C., (2010). Experiencia, pragmatismo y líneas de actuación comunes, bases del nuevo modelo de desarrollo rural del País Vasco. *Estudios Geográficos Vol. LXXI, 268*, 7-38.

EUSTAT. <http://www.eustat.eus/>

HAZI (2015). *Landa Garapenerako Eskualdeko Programak 2015 > 2020* (Gasteiz)

JATA-ONDO (2007). *Uribe Eskualdeko Landa Garapen programa 2007-2013* (Mungia)

JATA-ONDO (2014). *Evaluación PDR Uribe 2007-2013* (Mungia)

JATA-ONDO (2015). *Recogida de información segundo taller (Red de Agentes) del 23 de abril de 2015*(Mungia)

MENDINET. [http://www.mendinet.org/zonas\\_rurales.html](http://www.mendinet.org/zonas_rurales.html) (2015/06/02)



# EMAKUMEAK ETA ITSASOA – LAS MUJERES Y EL MAR

Antolatzailea / Organiza

**Erakusketa / Exposición**

29 / 01 / 2016 - 19 / 11 / 2016

25 URTE  
AÑOS



Gipuzkoako Foru Aldundia



Laguntzaileak / Colaboran



ELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES  
DSS2016.EU

Untzi Museoa-Museo Naval. Kaiko Pasealekua, 24. 20003 Donostia-San Sebastián. [www.untzimuseoa.eus](http://www.untzimuseoa.eus)